

Anjel Lertxundi: idazlea eta obra

Koordinatzaileak:

Beatriz Zabalondo Loidi
Alexander Gurrutxaga Muxika



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

CIP. Unibertsitateko Biblioteka

Anjel Lertxundi : idazlea eta obra /[koordinatzaileak, Beatriz Zabalondo Loidi, Alexander Gurrutxaga Muxika]. – [Leioa] : Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea, Argitalpen Zerbitzua = Servicio Editorial, D.L. 2024. – 212 p. ; 24 cm. – (Gabriel Aresti Katedra Bilduma ; 1)

Incluye referencias bibliográficas.

D.L.: BI 01549-2024. – ISBN: 978-84-9082-760-4.

1. Lertxundi, Anjel, 1948- 2. Literatura vasca. I. Zabalondo Loidi, Beatriz, coed. II. Gurrutxaga, Alexander, coed.

891.69Lertxundi, A.1.06

© Servicio Editorial de la Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua

ISBN: 978-84-9082-760-4

Lege gordailua: LG BI 01549-2024

Jorge Giménezentzat
(*in memoriam*)

Aurkibidea

Hitzaurrea Patxi Juaristi	11
LEHEN ATALA Atarikoak	15
Maisuari aitortza Alexander Gurrutxaga Muxika, Beatriz Zabalondo Loidi	17
Anjel Lertxundi, obra eta pertsona Bingen Zupiria	21
Komunitatea geroaren berme Anjel Lertxundi	27
BIGARREN ATALA Anjel Lertxundiren obra aztergai	33
Anjel Lertxundiren saiakeragintzaren gakoak: pentsamendua eta literatura tesela bidez Beñat Sarasola Santamaria	35
Anjel Lertxundi nobelagilearen bide adarkatuak: bestetasunak, zaurgarritasunak eta erredentzioak Iratxe Retolaza Gutierrez	63
Martzelina eta Rosaren infernua. Genero indarkeria Anjel Lertxundiren literaturan Lourdes Otaegi Imaz	91
Bilaketatik idazketara: ohar zenbait Anjel Lertxundiren literatur sorkuntzaz, testuartekotasunaren argitan Alexander Gurrutxaga Muxika	107
Itzuliz usu begiak: Anjel Lertxundiren obra itzulpengintzaren argitan Idoia Santamaria Urkaregi	123
Begirada bat Anjel Lertxundiren haur eta gazte literaturari Alexander Gurrutxaga Muxika, Xabier Etxaniz Erle	137

Anjel Lertxundi, euskal zinemaren bidegile	
Iñaki Lazkano Arrillaga, Ainhoa Fernandez de Arroyabe Olaortua	151
Anjel Lertxundiren zinema hizkerari so bat	
Beatriz Zabalondo Loidi	165
HIRUGARREN ATALA Idazlearen soslai baterako oharrak	183
Egilea eta itzultzailea, elkarren editore	
Jorge Giménez Bech	185
Andu: aho bixarrik gabe	
Juan Kruz Igerabide	193
Lapurrarena	
Uxue Alberdi	201
Anjel Lertxundi, historiaren kronometroan	
Iñigo Astiz	205
Anjel Lertxundiri SUTOPILDik	
Andoni Egaña	211

Hitzaurrea

Patxi Juaristi

Gabriel Aresti Katedraren zuzendaria

Aurrekoak erakusten du atzekoak nola dantzatu.

Gabriel Aresti euskal kulturari dantzatzen erakutsi dion aurrekoetako bat da. Ikuspuntu literariotik bide aberats, original eta emankorrak sortu zituen, eta euskalduntasuna ulertzeko modu berriak ireki. *Harri eta herri, Euskal Harria, Harrizko herri hau, Maldan behera...* Gabriel Aresti bide urratzailea izan zen, eta, gaur egun, euskal kultura modernoaren oinarri eta erreferente zalantzagabea da.

Atzekoek dantzatu dezaten, aurrekoek nola dantzatu zuten jakin beharra dago. Horregatik, hain zuzen ere, EHUK eta Bizkaiko Foru Aldundiak pentsatu zuten garrantzitsua zela katedra bat sortzea Gabriel Arestiren irudia eta obra belau-naldi berrien artean ezagutarazteko; baita gaur egungo euskal kulturaren oinarri diren idazle, eragile eta pentsalarien lanak balioetsi eta aztertzeke.

Katedrak memoria landu nahi du. Memoriak, izan ere, iraganarekin lotzen gaitu, kokatu egiten gaitu eta etorkizunean saihestu behar den bidea era-kusten; herritar jakintsuagoak, irizpide gehiagokoak eta, ondorioz, askeagoak ere sortzen ditu. Gehiago esango dut, memoria jorratzea etorkizunean inber-titzea da, zeren herrien identitatea memoriak emandako materialetatik elika-tzen da, nagusiki.

Katedrak ikerketari, sormenari eta dibulgazioari loturiko beste helburu hauek ere baditu:

- Literatura, komunikazioa, artea, soziolinguistika, linguistika eta, oro har, gizarte eta kultura alorreko gaien inguruko azterketak eta ikerketak bultzatzea.
- Euskal kultura eta arteari buruzko arte-sormena sustatzea.
- Ikuskizunak eta publiko orokorrarentzako dibulgazio ekimenak antolatzea.
- Gizartean eta bereziki EHUKo ikasle, irakasle eta langileen artean euskal kulturaren ezagutza handitzea.

Berba gutxirekin esateko, Gabriel Aresti Katedra euskal kulturaren ikerkuntzari, sorkuntza artistikoari eta dibulgazioari loturiko EHUKo katedra da; azken helburu gisa euskal kulturaren komunitatea sendotzen eta saretzen lagundu nahi duen unibertsitate-ekimena.

Helburu horiek tarteko, pozgarria da Anjel Lertxundiri buruzko liburu hau aurkeztea. Eta pozgarria da hiru arrazoiengatik: katedrak argitaratzen duen lehen liburua delako; katedraren hiru helburu garrantzitsuenak batzen ditugulako (ikerketa, sorkuntza eta dibulgazioa), eta, bereziki, katedraren liburu-bilduma euskal kulturako idazle, sortzaile eta pentsalari garrantzitsuenetako baten inguruko lanarekin hasiko dugulako.

Ajea du Urturik, Hamaseigarrenean aidanez, Otto Pette, Zorion Perfektua, Etxeko hautsa, Ihes betea, Zu, Zoaz infernura laztana, Horma... zenbat esamolde, pertsonaia eta gogoeta literario; zenbat pentsamendu, emozio eta mezu iradokitzaile.

Aresti bezala, Anjel Lertxundi ere euskal kulturari eta literaturari dantzatzen erakutsi dion maisua da. Bide urratzailea da. Beraz, ezinbestekoa da bere lana aztertzea; bere irudi eta berritasun literarioen inguruan gogoeta bultzatzea; bere sormenaren indarra aldarrikatzea eta ezagutaraztea. Izan ere, *Horma* izenburuko liburuan Fidelek dioen bezala, «memoriarik gabe ez dago originaltasunik».

Ikerketa eta memoria da eskuartean duzun liburua; maitasuna eta miresmena; EHUK, Gabriel Aresti Katedrak eta hainbat pertsonak Anjel Lertxundiri egiten dioten gorazarrea.

Eskerrik asko Alex Gurrutxaga eta Beatriz Zabalandori liburu honen oinarrian dagoen ikastaroa antolatu eta edizio hau prestatzeagatik.

Eskerrik asko liburu honetan idatzi duten idazle guztiei.

Eta eskerrik asko Anjel Lertxundiri prozesu guztian zehar bere prestasuna erakusteagatik.

Miresten ez dakienak adimendu gutxi.

LEHEN ATALA

Atarikoak

Maisuari aitortza

Alexander Gurrutxaga Muxika
Beatriz Zabalondo Loidi

1. ANJEL LERTXUNDI: IDAZLEA ETA OBRA

Mende erditik gorako ibilbidea egin du Anjel Lertxundik (Orio, 1948) literaturan. 1970ean eman zuen argitara lehen narrazio liburua, *Hunik arrats artean*, eta harrezkero etenik gabe aritu da literaturgintzan. Obra handia da Lertxundirena kantitatez: 20 liburu baino gehiago narratiban (izan narrazio labur zein nobela), dozenatik gora saiakera liburu, haur eta gazteentzat idatziriko 30 lan baino gehiago, prentsako milaka zutabe eta abar. Eta, kantitatez ez ezik, obra handia da kalitatez ere; horren erakusgarri dira eman dizkioten errekonozimendu eta sariak: besteak beste, Euskadi Saria nobelaren eta haur literaturaren alorretan, Espainiako Saiakera Sari Nazionala, Rosalía de Castro Saria eta Ahoz Ahok ematen duen Urrezko kalabaza.

Literaturan egindako lan horri guztiari, beste kultur esparru askotan egindako lana gehitu behar zaio. Lertxundik berak *tapatxulo* hitza erabili izan du bere belaunaldiaren jarreraz ari izan den zenbaitetan: nola aritu ziren, kulturaren hainbat esparrutan zeuden beharrei erantzuteko asmoz (literaturan, zinean, telebistan, kazetaritzan, etab.), zuloak tapatzen, zerbitzuko lanean.

Hain ibilbide oparoa eta errekonozitua izanik, ezinbestekoa da literatur ikerketen esparru akademikoak berau aztertu eta etorkizuneko ikerketei ateak zabaltzea. Asmo horrekin, hain zuzen, antolatu zen *Anjel Lertxundi: idazlea eta obra* izeneko uda ikastaroa, 2023ko ekainaren 29an eta 30ean, Donostiako

Miramar jauregian. Kongresuak bi helburu nagusi izan zituen: bata, Anjel Lertxundiren obra ezagutaraztea; eta, bestea, bere literaturgintzak ikergai gisa duen interes handia azaleratzea. Uda ikastaroaren prelude edo aurrekari gisa, ospakizun berezi bat izan zen Zarautzen, ekainaren 20an. Zarauzko Udalak Kultur Merezimenduaren Domina eman zion idazleari, eta, ondoren, haren obrari buruzko kultur ekitaldi bat izan zen Modelo aretoan.

Esan bezala, ikerketen esparruak behar-beharrezkoa du Lertxundiren obrari begiratzea. Orain arte, handiak izan dira hutsuneak, gutxiegi haren obrari xeheki begiratu dioten lanak, eta zentzu horretan baduke akademiak zer pentsatua. 2023ko aipaturiko ekitaldiek pauso xume bat eman nahi izan zuten ikerketen ildoan, eta liburu honen asmoa bide horretan beste urrats bat egitea da.

Hala Zarauzko ekitaldietan nola, batez ere, uda ikastaroan, askotariko hitzartzeak egon ziren Lertxundiren figuraz eta obraz, eta hitza hartu zutenak goi mailako ikertzaile eta kulturgileak izan ziren. Liburu honetan haien ekarpenak bildu ditugu modu bateratuan, Lertxundiren obran interesa duen edonork goza ditzan, eta ikertzaileek oinarri panoramiko sendo bat izan dezaten etorkizunean urratsak egiten jarraitzeko.

2. LIBURU HONETAN BILDUAK

Gabriel Aresti Katedrako zuzendariaren aitzinsolasarekin hasten da liburu hau, «Hitzaurrea» deritzona. Ondoren, hiru atal nagusitan banatuta dator. Lehenean, sarrerako testuak datoz: Liburuaren apailatzaileok eskainitako «Maisuari aitortza»; jarraian, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburu zen Bingen Zupiria jaunarena: testu horrekin egin zuen Uda Ikastaroaren irekiera instituzionala. Ondoren, Anjel Lertxundik ondu duen testua dator, ikastaroan emandako hitzaldian oinarritua. Ez da irakurleontzat luxu makala Lertxundiren obra ikertzen duten testuen aurretik egilearen beraren testu bat irakurri ahal izatea.

Bigarren atalekoak «Anjel Lertxundiren obra aztergai» izenpean batu ditugu. Izenak dioen moduan, batez ere idazlearen obrari begiratu dioten lanak bildu ditugu, testu gutxi-asko akademikoak direnak. Orotara, zortzi artikulua jaso ditugu, Lertxundiren obraren hainbat alderdi ikertzen dituztenak. Bistakoa egingo zaio irakurleari panoramikaren zabala: saiakeragintza, nobelagintza,

haur eta gazte literatura, itzulpengitza eta zinemagintza. Eta, alderdi horiei begiratzeko, askotariko ikuspegiak eta ikerbideak sumatuko ditu: ikasketa kulturalak, itzulpen ikerketak, kritika feministak eta abar.

Hirugarren atalean, «Idazlearen soslai baterako oharrak» deiturikoan, berriz, egileari begiratu dioten testuak daude, elkarrekin idazlearen soslai bat osatzen lagundu diezaguketenak, testu ez-akademikoak. Jorge Giménez Bechek eta Juan Kruz Igerabidek Uda Ikastaroan eskaini zituzten euren testuak, 2023ko ekainaren 29an eta 30ean, hurrenez hurren. Beste hiru idazleek, berriz, Zarauzko ekitaldietan hartu zuten parte, ekainaren 20an. Anjel Lertxundiri Kultur Merezimenduaren Domina emateko ekitaldian irakurri zuen «Lapurarena» Uxue Alberdik. Egun horretan bertan eskaini zuen Iñigo Astizek bere testua, Modelo aretoko ekitaldian. Eta han egindako hitzartzean oinarritua da Andoni Egañaren idatzia ere. Testu hauetan ere, agerikoa egingo zaio irakurleari, Lertxundiri buruz diotenaren interesa ez ezik, esateko moduaren egokitasuna ere.

3. ESKERRAK

Anjel Lertxundi: idazlea eta obra ikastaroa eta liburua festa bat dira; paper-festa bat, Lertxundiren izenburu bat baliatuz esateko, eta baita literaturaren festa bat ere. Festa hori ospatu ahal izateko, jende askok hartu du parte, eta eskerrak eman nahi dizkiegu denei.

Gabriel Aresti Katedrari eta Patxi Juaristi zuzendariari, argitalpen hau babes-teagatik, zeina, gainera, Katedraren lehenbizikoa den. Ibilbide luze eta eman-korra opa diogu.

eLiburutegiari eta Zarauzko Udalari, udako ikastaroa babesteagatik; eta Uda Ikastaroak Fundazioari, ikastaroa egiteko azpiegitura eskaintzeagatik.

Zarauzko ekitaldietan eta uda ikastaroan hizlari aritu ziren guztiei, eta liburu honetan parte hartu dutenei. Ekitaldietan eta ikastaroan parte hartu zuten batzuk liburuan ez daudenez, aipa ditzagun: Karla Fernandez de Gamboa (Lertxundiren haur eta gazte literaturaz), Nere Arruti (Lertxundiren literaturaz), Antton Olariaga (Lertxundiren obra ilustratzeaz), Danele Sarriugarte (Lertxundiren literaturaz), Mireia Galarza (Modelo aretoko ekitaldiko aurkezlea). Horiez

gain, uda ikastoaren itxieran, Anjel Lertxundiren testuak irakurri zituztenak: Arantxa Urretabizkaia (idazlea), Miriam Urkia (Euskaltzaindiaren Gipuzkoako ordezkaria), Koro Navarro (itzultzailea), Iruñe Urbietak (Zarauzko Kultura zinegotzia), Juan Kruz Igerabide (idazlea), Itziar Ugarte (idazlea eta *Berria* egunkari-ko kazetaria). Musika Pello Ramirezek jarri zuen.

Hizlarien lana alferrikakoa baita entzulerik ez baldin badago, milesker ekitaldietan eta ikastaroan parte hartu zuten entzule eta irakurle guztiei.

Bihotz-bihotzez eskerrak eman nahi dizkiogu Anjel Lertxundiri berari, prestutasunez eta adeitsu hartu baitu parte berari eta bere obrari eskainitako ekitaldietan, ikertzaileei lanerako espazioa emanez eta zerbait behar zutenean haien eskura jarritz. Eskerrik asko, maisu.

Eta, azkenik, oraitzapen hitz batzuk. Izan ere, liburu hau osatzen ari ginela hil zen Jorge Giménez. Urte luzez izan zen Lertxundiren itzultzaile, editore, lagun. Ikastaroa antolatu genuenean, parte hartzeko gonbita egin genion, eta Jorgek, jada oso gaixo egon arren, pozik onartu zuen. Ahalegin izugarria egin zuen Miramarren egon eta hitzaldi bikain bat eskaintzeko, ohikoa zuen diskrezioz eta dotoreziaz. Liburu honetan dago testua, hain zuzen. Kitatu ezingo dugun zorra geratu zaigu Jorgerekin. Baina baita maitasunezko oroitzapen gozoa ere.